

Jardueren Oroitidazkia 2014

SABINO ARANA FUNDAZIOA, 2014ko abendua

AURKIBIDEA

1.- BEKAK ETA IKERKETEN SUSTAPENA

2.- ARGITALPENAK

3.- HERMES PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA

4.- GOGOETA ETA ELKARRIZKETARAKO MINTZAGUNEA

Mintegiak
Hitzaldiak

5.- MEMORIA HISTORIKOA

6.- GAZTERIA

7.- EUSKARA

8.- ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGI HISTORIKOA

9.- EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA

10.- SABINO ARANA SARIEN KULTUR JAIALDIA

11.- BESTE ERAKUNDE ETA INSTITUZIO BATZUEK SUSTATUTAKO
JARDUERETAN PARTE HARTZEA

12.- HEDAPENA ETA KOMUNIKAZIOA

13.- LORTUTAKO EMAITZEN BALIOESPENA

1.- BEKAK ETA IKERKETEN SUSTAPENA

- **1.1.- Alberto Onaindiaren postatrukea, 1936 eta 1945 bitartean**

Oso tamaina handiko lan bat da; orain dela zazpiti bat urte hasi zen, eta eginkizuna Vatikanoko Artxiboetan (Erroma) eta Estatuko beste artxibo batzuetan barreiatutako 4.000tik gora dokumenturen bilketa, transkripzioa eta oharpenak egitea izaten ari da. Helburua da, Agirre lehendakariaren laguntzaile izan zen Alberto Onaindia apaizaren 1936 eta 1945 bitarteko postatrukea berreskuratzea eta hark Gerra Zibilean zein II. Mundu Gerran egin zituen gestioen berri lortzea.

Gaur egun, esan behar da, postatrukea eta txostenak ia den-dena dagoela transkribatuta. Faltza dira 1945eko martxotik eta abuztura arteko epeari dagozkionak eta Onaindiak 1940-1945 bitartean BBCrentzat idatzi zituen irrati-kolaborazioak (300 bat testu ggb.).

2.- ARGITALPENAK

- **2.1.- “Luis de Arana y Goiri: un arquitecto desconocido, 1862-1893-1951”, Gorka Pérez de la Peña idatzia.**

Gorka Pérez de la Peña historialariak hitzaldi bat eman zuen martxoaren 27an, Luis Arana Goiriren arkitekto-jardunari buruz. Herri honen historia politikoan izan zuen eragin erabakigarriaz harantzago, Luis Arana arkitekto nabarmen gisa agertzen zaigu, Euskadiko arkitektura garaikideko bikainetako bat, bere lan multzo apartagatik (444). Lan haiek nortasun bereziko interpretazio bati jarraitzen zaizkio, gehien bat hiru estilotan ematen dituelarik, hots: neovasco deritzona, art deco eta arrazionalismoa. Ekitaldian, liburua aurkezteaz gain, baita parte hartu zuten ere **Itxaso Atutxa** EAJ-PNVren BBBko lehendakariak eta **Iñaki Arana** Luis de Aranaren anaia-bilobak.



- **2.2.- “Salvad a los niños. Historia del exilio vasco en Gran Bretaña, 1937-1940”, Gregorio Arrienek idatzia**



Maiatzaren 8an Gregorio Arrien historialariak bere azken liburua, “*¡Salvad a los niños! Historia del exilio vasco en Gran Bretaña, 1937-1940*” aurkeztu zuen Sabino Arana Fundazioan. Fundazioak berak argitaratutako aipatu liburua oso dokumentazio oparo eta orain artean ia ezezagun batean dago oinarrituta, erbesteko Euzkadiko Jaurlaritzaren Londreseko ordezkariartzakoan eta beste iturri batzuetan, besteak beste:

artxiboak, hemerotekak eta hura zuzenean bizi zutenen ahozko lekukotzak. Horrenbestez, Gregorio Arrien historialariak idatzitako lan oso eta mardul horrek euskal umeek Erresuma Batuan bizi izandako erbestaldiarekin zerikusia duen guztia jasotzen du. *¡Salvad a los niños!* liburuan Euzkadiko gerra kontatzen da, eta ebakuazioa eta um haiek egon ziren esparru eta barnetegietako bizitza ere bai; baina baita kontatzen du ere haien laguntzaile zaintzaileen, maistren eta apaizen historia. Aurkezpenean parte hartu zuten baita ere **Ander Manterolak** — Labayru Ikastegia— eta **José Ramón Blázquez** komunikazio-aholkulariak.

- **2.3.- “La política como pasión. El lehendakari José Antonio Agirre (1904-1960”, egileak Ludger Mees, José Luis de la Granja, Santiago de Pablo eta José Antonio Rodríguez Ranz**

Tecnos-ek argitaraturik, liburua Euzkadiko Agiritegi Historikoan aurkeztu zen, ekitaldi horrekin burutuz AL 50 Agirre Lehendakaria Batzordeak haren heriotzaren 50. urteurrena gogoratzeko antolatu zituen jarduerak.



Liburuaren egileek, Ludger Mees, José Luis de la Granja, Santiago de Pablo eta José Antonio Rodríguez Ranz historialariek, Lehendakariaren biografia politikoko gertaerarik garrantzitsuenak aztertzen dituzte berak bizi izan zuen testuinguru historikoaren barruan.

Aurkezpenean mintzatu ziren: **Juan M^a Atutxa, Aintzane Agirre, Ludger Mees** eta **Iñigo Urkullu** lehendakaria.

- **2.4.- “Un patriota vasco en Nueva York: José Luis de la Lombana”, Iñaki Anasagastik eta Josu Erkorekak idatzia**

Nevadako Unibertsitateko (Reno) Euskal Ikasketen Zentroak Xabier Irujoren laguntzarekin argitaratua, liburuak jeltzale gazte baten historia kontatzen du, 1938an Europarako bakea eskatzeko AEBetara joan eta erbestetik Euskal Herriaren askatasunen alde lan egin zuen gizon batena.

Argitalpenak xehetasunez kontatzen du José Luis de la Lombana Foncearen ibilbidea: Madrilen jaso zuen hezkuntzatik hasi eta, 1936ko Gerra Zibila ekarri zuen estatu-kolpe militarren garaiko erresistentzia eta Gasteizen espetxeratua izan zen sasoiabarne, bai handik ihes egin eta Frantziara joan zenekoa, gero Bartzelonako aktibismoa —hiri horretan, erbestaldiko Euzkadiko Jaurlaritza sostengatzen zuen *Euzkadi* egunkari jeltzaleko editore gisa egin zuen lan— eta azkenik haren erbestaldira arte.



- **2.5.- “Goazen gudari danok...”,**

“GOAZEN GUDARI DANOK... *Askatasun-bidean Zirardamendi, Aiastia (San Migel), Elgoibar, 1936*” ekimena osatzen duten ekitaldien artean, Elgoibarko Kultur Etxean



dibulgazio historikoko liburu baten aurkezpena egin da. Liburua Patxi Juaristi soziologoak, Aitor Estebanek eta Francisco Etxeberria auzitegi-medikuak eta Josu Chueca eta Iñaki Goiogana historialariek idatzi dute.

Liburuak, Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak idatzitako hitzaurreaz gain, bost kapitulu ditu, egile bakoitzak bana eginda. Lehenengoan Iñaki Goioganak gerra Gipuzkoan nola izan zen idatzi du: hasietarik eta 1936ko irailaren azkenetara arte. Patxi Juaristik, bere aldetik, 1936ko irailaren 21a eta urriaren 6a bitartean Zirardamendin eta inguruetan agitu ziren gertaerak jaso ditu. Hirugarrenean, Aitor Estebanek, zein Zirardamendin hustutako hobi batean identifikatutako gudarietako baten senidea baita, azterlan historiko bat egin du, hain zuzen ere, guda-talde matxinatuak Bizkairantz egiten ari ziren aurreratze ordura arte geraezina geldiarazteko funtsezkoa izan zen gudu hartan borrokatu zen unitateari (Arana Goiri batailoiko Garaizabal konpainia) buruzkoa. Laugarren kapitulua Josu Chueca historialariak gertatu du, bertan mintzatzen

delarik frontea egonkortzea ahalbidetu zuenaz, lehenengo Eusko Jaurlaritzaren eratzearaz eta Agirre lehendakariaren gobernuak garatutako zereginaz. Azkenik, Francisco Etxeberria auzitegi-medikuak Zirardamendin Aranzadi elkarteak egindako hobi-hustutze lanei buruz idatzi du.

2.6.- DEIA egunkarirako artikuluak. Euskal historia eta antropologiako askotariko gai zenbaiti buruz Deia egunkarirako kolaborazio gisa idatzitako artikuluak.

2014an zehar Sabino Aranak “Euskaldunen historiak” saileko kolaborazioak koordinatu ditu DEIArentzat. Artikulu horietan, Euskadiren historia moldatu eta zizelkatu duten zenbait gai historiko eta antropologikoren gainean idazten da.

Ekimen horretan Sabino Arana Fundazioak eta Deia egunkariak lankide izan dituzte: **Arantzazu Ametzaga, Xabier Ormaetxea, Gorka Pérez de la Peña, Fernando Mikelarena, Jabier Aspuru, Félix garcía Olano, José Julián Bakedano, Ascensión Badiola, Xabier Irujo, Andoni Elezcano, Isabelle Bilbao, Gregorio Arrien, José M^a González Zorrilla, Andrés Urrutia, Unai garabietta, Amaia Mujika, Philippe Regnier, Marian Álvarez, Jean-Claude Larronde, Juan José González Sánchez, Aleix Romero, Iñaki Anasagasti, Viviane Delpech, Itxaso Sainz de la Maza, Santiago Larrazabal, Adolfo Arejita, Román Berriozabal eta José Altuna**, Sabino Arana Fundazioko teknikari eta historialariez gain.

3.- “HERMES” PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA

2014an Hermes aldizkariaren hiru zenbaki argitaratu dira, zehazki: 46, 47 eta 48.

46 zk.: *“Europa: Eskozia, Katalunia eta Euskadi”*. Europako Parlamenturako hauteskundeak gainean zirela argitaratu zen zenbaki hau, honako hauek kolaboratzaile: **David McCrone**, Edinburgoko Unibertsitateko Soziologia irakasle emeritua; **Xabier Ezeizabarrena**, abokatu eta EHUKo Administrazio Zuzenbideko irakaslea; **Juan José Álvarez**, EHUKo Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedraduna; **Estefanía Jiménez**, EHUKo Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea saileko irakaslea; eta **Igor Filibi**, EHUKo Nazioarteko Harremanetako irakaslea eta Europar Mugimendurako Euskal Kontseiluko presidenteordea. Elkarriketa **Esther Giménez-Salinas** Esade-URLko Zuzenbide Fakultateko Zigor Zuzenbideko katedradunari egin zitzaion.

47 zk.: *“Zigor Zuzenbidea ETArek amaieran. 3 urte. 1.096 egun”*, inguruabar berri hauetan Zigor Zuzenbideak egin beharrekoak edo zigor- eta espetxe-politika nola bideratu beharko litzatekeen gogoeta; gai horretaz Sabino Arana Fundazioak zenbait elkarraldi antolatu zituen judikaturari, abokatutzari, irakaskuntzari eta erakundeei lotutako hainbat pertsonarekin, aurtengoa haien hirugarren aldia izan delarik.



Hermes aldizkariaren zenbaki berezi hori joan den ekainaren 13an egindako elkarraldian sortutako gogoetaen emaitza da; jardunaldi hartan ETArek amaieraren aurrean zigor- eta espetxe-politika nola bideratu beharko litzatekeen hausnartu zen. Kolaborazioen egileak dira, **Esther Erice**

Nafarroako Probintzi Auzitegiko presidentea; **Txema Montero** abokatua, **Ignacio Muñagorri** EHUKo Zigor Zuzenbideko katedraduna, eta **Ana I. Pérez Machío** EHUKo Zigor Zuzenbideko irakasle titularra. Aldizkarian baita sartu da ere elkarrizketa bat **Mercedes García Arani** (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa) eta **Carmen Lamarcari** (Madrileko Carlos III.a Unibertsitatea) egina; biek ala biek esan dute “premiazkoa dela Espainian salbuespenezkotasun juridikoa deseraikitzea”. Zenbakiaren edukia osatzeko, “hiru urteotan elkarraldietan parte hartu duten adituen lantaldeak gertatutako ondoreak edo “printzipioen corpus erkidea”.

48 zk.: *“Aniztasunean bat eginik? ¿Unidos en la diversidad?”* Joan den 2013ko irailaren 11n, Europako Parlamentuan gehiengo handiz onetsi zen *“Desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzei eta Europar Batasuneko hizkuntza-aniztasunari buruzko txostena”*ren kariatara, Sabino Arana Fundazioak eta Euskaltzaindiak mintegi bat antolatu zuten egile eta gertakuntzan ere parte hartutakoekin. Elkarraldi hartan egindako gogoeten eta hartutako konpromisoen emaitza da Hermes pentsamendu eta historia aldizkariaren 48 zenbaki hau.



Jardunaldian, Europako Parlamentuko Gutxiengoaren Talde-elkarteko presidentekide biez gain —**François Alfonsi** (Berdeak-ALE Taldekoa) eta **Csaba Sándor Tabajdi** (Europako Parlamentuko Sozialisten eta Demokraten Aliantza Progresistaren Taldekoa)—, baita aritu ziren ere **Izaskun Bilbao** EAJ-PNVko eurodiputatu; **Ramón Tremosa**, CiUko eurodiputatu, **Patxi Baztarrika**, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako sailburuordea, bai eta beste eurodiputatu batzuk eta Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta euskara, hezkuntza eta euskal kultura arloetan lan egiten duten elkarte eta erakunde zenbaiten ordezkariak.

Hermes pentsamendu eta historia aldizkariaren zenbaki berezi horrek gaiaren gaineko zenbait gogoeta ere jasotzen ditu, honako hauenak: **François Alfonsi**, **Csaba Sándor Tabajdi**, **Izaskun Bilbao**, **Patxi Baztarrika** eta **Andres Urrutia** euskaltzainburua.

4.- GOGOETA ETA ELKARRIZKETARAKO MINTZAGUNEA

MINTEGIAK ETA HITZALDIAK:

- **4.1.- MIntegia: “Europako hauteskundeak eta herritartasuna”**

Aste gutxi falta zirela Europar Parlamenturako hauteskundeak egiteko, oso hauteskunde erabakigarriak, bestalde, krisiak, ziurgabetasunak eta herritarrek europar egitasmo politikoari dioten atxikimendu urriak markatutako garai hauetan, Sabino Arana Fundazioak eta IEDk (Europar Demokraten Institutuak) mintegi hori antolatu zuten, Europar Batasunak gaur egun bizi duen egoerari buruzko diagnostiko bat lortzen saiatzeko, ekin berezia eginez, batetik,

jasaten ari garen sistemazko krisi honetan eta, bestetik, enpleguan eta mundu globalizatuak eskatzen duen lehiakortasunean.

Elkarraldian berrogei bat adituk parte hartu zuten, europarlamentari, katedradun, politikari

zein abokatu;
besteak beste,
aipatu jardunaldian
izan ziren:

Graham Watson,
ALDE alderdiko
(Europako
Liberalen eta
Demokraten
Aliantza)
presidentea; **Luigi
Cocilovo**, Europar
Demokraten
Alderdiko
idazkariorde
nagusia eta
Europar



Parlamentuko mahaiburuordea; **Izaskun Bilbao**, europarlamentaria, eta **Manfred Nolte**, Deustuko Unibertsitateko *Deusto Business School*eko irakaslea eta Alboaneko kidea. Mintegia **Andoni Ortuzar** EAJ-PNVren EBBko lehendakariak ireki zuen.

- **4.2.- Mintegia: “Osasuna eta gizarte-zerbitzuak: osagarritzkoaren kudeaketa”**

Sabino Arana Fundazioak “Osasuna eta gizarte-zerbitzuak: osagarritzkoaren kudeaketa” mintegia antolatu zuen, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Enplegu eta Gizarte Politiketako sailekin elkarlanean, xede nagusia zela, laguntza soziosanitarioaren arloko eredu berri batzuk aztertzea, gero Euskadin ere hura hobetu dezaketen ekintza-planak abian ipini ahal izateko.



Mintegian arlo eta zerbitzu soziosanitarioen arloko beste 50 bat pertsonak ere parte hartu zuten, aditu, arduradun, aholkulari zein eusko legebiltzarreko politikari, besteak beste: **John**

Farrell Ipar Irlandako Osasuna, Gizarte Zerbitzuak eta Segurtasun Publikoa Sailean Osasun-zerbitzua Eraldatzeko zuzendariondokoa; **Alfonso Lara** *European Social Network*eko (ESN) Politika eta Ikerkuntza zuzendaria; **Lourdes Zurbanobeaskoetxea** Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko EAEko koordinatzaile soziosanitarioa. Eusko Jaurlaritzaren aldetik mintzatu ziren, Jon Darpón Euskal Osasun sailburua eta **Iñigo Pombo** Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako sailburuordea.

- **4.3.- Mintegia: “Zigor Zuzenbidea ETaren amaieran”**

Berrogeita hamar bat epaile, magistratu, fiskal, zigor arloko abokatu, politikari eta akademikok parte hartu dute “Zigor Zuzenbidea ETaren amaieran” mintegiaren hirugarren aldia. Jardunaldi horiek 2012tik ari da antolatzen Sabino Arana Fundazioa. Helburua da, aurrera egiten eta lan egiten segitzea, Justizia ETak armazko jokabideari utzi dionetik gertatutako agertoki berrira egokitzea eraman dezaketen formulak bilatzeko eta aurkitzeko.



Margarita Uria letraduak koordinaturik, gaurko jardunaldian hizlariak izan dira:

Joaquín Giménez, Auzitegi Goreneko magistratua, Zigor arloa; **Mercedes García Aran**, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Zigor Zuzenbideko katedraduna, **Carmen Lamarca**, Madrileko Carlos III.a Unibertsitateko Zigor Zuzenbideko katedraduna, eta **Ignacio Muñagorri**, EHUKo Zigor Zuzenbideko katedraduna.

- **4.4.- Mintegia: “Nazioarteko Lankidetzaren paradigma-aldaketa. Nola eta zergatik esku hartu errenta ertaineko herrialdeetan”**



Garapenerako nazioarteko lankidetzako aditu zenbaitek ohartarazi dute ezen, garapen-helburuak lortu nahi badira, nazioarteko komunitateak beharrezkoa duela errenta ertaineko herrialdeek arrakasta izatea. Sabino Arana Fundazioak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin elkarlanean, joan den ekainaren 20an antolatutako “Nazioarteko Lankidetzaren paradigma-aldaketa.

Nola eta zergatik esku hartu errenta ertaineko herrialdeetan” mintegia antolatu zutelarik, goiko ondorioak atera zituzten jardunaldian parte hartu zuten 40 profesionalak; horiek ziren, besteak beste: esperientziadunak garapenerako nazioarteko lankidetzan, lankidetzako agentzia eta erakundeetako arduradun batzuk, katedradunak etab.

Elkarraldi horretan hizlari izan genituen **José Antonio Alonso**, Madrileko Konplutense Unibertsitateko Ekonomia Aplikatuko katedraduna, eta **Javier Iguñiz** “*Acuerdo Nacional del Perú*” (Peruko Adostasun Nazionala) bilguneko idazkari betearazlea. Moderatzaile zereginetan **Javier Arellano** Deustuko Unibertsitateko “Etika Aplikatuko Zentro”ko zuzendariak jardun zuen.

Javier María Iguñiz Echeverria euskal-perutarrak “Peruren egitura ekonomikoa eta bertako aukerak” gaia azaldu zuen, eta gogoeta egin ere bai Peruren gaur egungo hazkunde azkarraren ahal-gaitasunen eta askieztasunen gainean, honako alderdi hauetan oinarrituta beroriek: hazkunde-, txirotasun- eta desberdintasun-estatistikak, ekoizpen-egitura, hezkuntza, gizarte-aurreikuspena, birbanaketa, Estatua eta familia, eta instituzio-moduak eta zerbitzu publikoak.

Iguñizek adierazi zuen ezen “Peruren ekonomiak hazten jarraituko duela hurrengo urteetan, aribidean diren inbertsio handien eraginez”.

Bere aldetik, Madrileko Konplutense Unibertsitateko Ekonomia Aplikatuko katedradun eta Lankidetzako Iberoamerrikarerrako Institutuko Lankidetzako Ekonomikoko Zuzendari ohi **José Antonio Alonsoren** mintzagaia errenta ertaineko herrialdeek (EEH) lankidetzako sisteman duten eginkizuna izan da, eta esan zuen ezen EEH horiek “oraindik beraien garapen-prozesuei eragiten dieten egitura-ments eta ahultasun handiak dituztela aurrean”. “Ildo horretan, baita erantsi zuen ere “EEH bakarrik ez direla nazioarteko komunitatearen laguntza behar dutenak, ezpabere ze baita nazioarteko komunitateak ere behar duela EEHek arrakasta izatea, baldin eta nahi bada garapen-helburuak lortu daitezen”.



- **4.5.- Mintegia: “VII. Bilboko elkarriketak: Energia, lehiakortasuna eta klima-aldaketa”**

Sabino Arana Fundazioak, Europar Demokraten Alderdiarekin (PDE-EDP) elkarlanean “VII. Bilboko elkarriketak” topaketak antolatu zituen joan den irailaren 29an eta 30ean. Izenburu orokorra “Energia, lehiakortasuna eta klima-aldaketa” izan zelarik, haietan zenbait politikari latinoamerikarrek eta europarrek eta nazioarteko beste zenbait adituk energia-politiken gaur egungo egoera eta erronkak aztertuko zituzten hala Euskadikoak mundu mailakoak, alegia.

Jardunaldiak irekitzeko ardura **Andoni Ortuzar** EAJ-PNVren EBBko lehendakari eta PDE-EDPko lehendakariordeak, **Francesco Rutelli** PDE-EDPko presidenteak eta **Gutenberg Martínez** M. de Cervantes Unibertsitateko errektore eta Txileko Diputatu Ganberako, Txileko Alderdi Kristau Demokratiko eta ODCAko mahaiburu ohiak izan zuten.

Ortuzarrek esan zuen ezen “*Europar Batasunak energiaren esparruan albait arinen hartu behar dituela beharrezko neurriak, halako eraz ezen, beste sektore-politika batzuekin batera, lehiakortasunaren, hazkunde ekonomikoaren eta enpleguaren aldeko sostengua mobiliza dezaten*”. Ortuzarren iritziz, kontua da Energiaren Europar Batasun bat eraikitzea,

“beregaintasun energetikoa xede duena, lehiakortasuna hobetzen lagundu eta, azken buruan, Europaren etorkizuna bermatuko duena”.

Ondoren mahainguru bat etorri zen, *“Energiaren eragina munduko geopolitikan”* izenburuduna, zeinetan **Gutenberg Martínezek**, **Francesco Rutellik** eta **Iván Martén** *The Boston Consulting Group*eko (BCG) zuzendari nagusiak parte hartu baitzuten. Mahainguruko artzakiari **Juan Ignacio Garcia Motiloa** Eusko Jaurlaritzako Industria sailburuordeak jardun zuen.

Asteartean, irailaren 30ean, beste hiru mahainguru egin ziren. Lehenengoan, *“Europako eta Latinoamerikako egoerak”* izenburupean, parte-hartazaleak izan ziren: **Eloy Álvarez Pelegry** Deustuko Unibertsitateko Energia katedrako zuzendaria; **Jorge Rodríguez Grossi** Txileko Ekonomia eta Energia Ministro ohia eta Txileko Alberto Hurtado Unibertsitateko Ekonomia eta Negozioak Fakultateko dekanoa, eta ENAGASeko Estrategia eta Erregulazioko zuzendari nagusi **Juan Pons**. Ondorengo debatea **Izaskun Bilbao** eurodiputatuak arteztu zuen.

Bigarren mahainguruak, *“Energia eta klima-aldaketa”* izenburupean eta **Javier Zarraonandia** Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasunerako Saileko Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariak ziharduela artzakiari, honako hauen hitzaldiak izan zituen: **Xabier Viteri** Iberdrolako energia berritzagarrietarako zuzendaria; **Ibon Galarraga** Ekonomian doktorea eta irakasle ikertzailea Euskal Klima Aldaketarako Zentroan; **Sebastián Acha** Paraguaiko parlamentari nazionala eta *Patria Querida* alderdiko buruzagia, eta **Gabriela Cuevas** Mexikoko Senatuko senataria.

Bukatzeko, azken mahainguruak *“Euskadiren gaur egungo egoera eta energia-politikaren erronkak”* gaia garandu zuen honako aditu hauen eskutik: **Javier Zarraonandia**; **Sabin Azua**, B+I STRATEGYko zuzendari nagusia, eta **José Ignacio**



Hormaeche, Energiaren Klusterreko zuzendaria. **Jorge Rodríguez Grossi** arteztu zuen debatea. **Arantza Tapia** Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasunerako sailburuak itxi zuen Bilboko Elkarriketak jardunaldien zazpigarren aldia.

- **4.6.- Mintegia: “Mugazgaindiko lankidetzak Europa integratzeko prozesuan duen esanahia: gaur egungo egoera eta etorkizunerako ikuspegiak”**

Sabino Arana Fundazioak eta Europar Demokraten Institutuak (IED) joan den azaroaren 21ean “Mugazgaindiko lankidetzak Europa integratzeko prozesuan duen esanahia: gaur egungo egoera eta etorkizunerako ikuspegiak” izenburuko mintegia antolatu zuten Hondarribian (Gipuzkoa). Jardunaldiaren helburua izan zen, Europar Batasun barruko

mugazgaindiko lankidetzarako politika (lan-esparrua, eskura dauden tresna juridikoak, helburuak, etab.) aztertzea eta hartaz hitz egitea, bai halaber, euskal mugako errealitatea eta Europako beste eskualde batzuetako mugazgaindiko lankidetzaz.

Elkarraldian parte hartu zuten erakundeetako ordezkari zenbaitek, katedradun batzuek eta Hegoaldeko, Iparraldeko eta Akitaniako kultur erakundeetako eta toki- zein lurralde-garapenerako elkarte zenbaiteko kide batzuek, eta bertan **Andoni Ortuzar** EAJ-PNVren EBBko lehendakari eta PDE-EDPko lehendakariordeak aldeztu zuen “Estatu espainoleko eta frantseseko euskararen lurraldeak hartuko dituen Euroerregio bat, hain zuzen ere, gure herrien arteko lankidetzaz eta Pirinioen alde bietako gure administrazio-errealitate desberdinen lankidetzaz sustatuko dituen”. Ildo horretan, zera azpimarratu zuen, “muga guztiak Europar Batasuneko ankronismorik handienetakoak dira”, ekin eginez, “lurralde-mugak oztopo direla garapenerako eta hazkunderako”.

Beste alde batetik, Sabino Arana Fundazioko lehendakari **Juan M^a Atutxak** zera nabarmendu zuen, “Europa dagoeneko bada lur ongarrtua, eta etorkizunean are gehiago izan daiteke, sormen eta berrikuntza politikorako, bai halaber, gure antolaera eta artikulazio modu berriak arakatu, entseatu eta errealitate bihurtzeko, herritarren eta herrien interesak kontuan gehiago hartuko dituztenak, alegia ”.

Andoni Ortuzar eta Juan M^a Atutxaz gain, “mugaz gaindiko” jardunaldi horien irekieran baita parte hartu zuten ere **Aitor Kerejeta** Hondarribiko alkateak eta **Mikel Anton** IEDen Zuzendaritza Kontseiluko kideak.

Ondoren,
mahainguru
egin ziren,
Europar
Batasuneko,
euskal
mugako eta
Europako
beste lurralde
batzuetako

hiru



Mugazgaindiko Lankidetzarako politikarekin zerikusia zuten zenbait gaiz hitz egiteko. Mahaietako hizlari jardun zuten: **Martín Guillermo** Europako Mugalde Eskualdeen Elkarteko idazkari nagusiak; **Igor Filibi** EHUKo Nazioarteko Harremanetako irakasle eta Europar Integrazioko Masterrak; **Francisco Letamendia** EHUKo Politika eta Administrazio Zientziako irakasle emerituak; **Marc Moulin** Akitania—Euskadi Lurralde Lankidetzarako Europar Elkarteko zuzendariak; **Pantxo Etxegoin** Euskal Kultur Erakundeko zuzendariak; **Olga Irastorza** Bihartean Mugazgaindiko Ganberako koordinatzaileak; **Jens Gabbe** Europako Mugalde Eskualdeen Elkartearen (ARFE) Kontseilu Aholkulariko mahaiburuak, eta **Ignacio Sánchez Amor** Kongresuko diputatu eta Europako Segurtasunerako eta Lankidetzarako Erakundearen (OSCE) Batzar Parlamentarioaren muga-arazoetarako ordezkari bereziak.

Eta haietan artezlari edo moderadore zereginetan aritu ziren: **Izaskun Bilbao**, ALDE taldeko (Europar Parlamentuko Liberal eta Demokraten Aliantza) presidenteordea; **José M^a Muñoa**,

Kanpo Harremanetarako Lehendakariaren ordezkari ohia eta Eusko Ikaskuntzako presidente ohia, eta **Xabier Ezeizabarrena**, abokatua eta Ingurumen Zuzenbideko Masterreko Administrazio Zuzenbideko eta abokatutzan sartzeko Master ofizialeko irakaslea (Euskal Herriko Unibertsitatea)..

- **4.7.- Hitzaldia: “Venezuelako gaur egungo egoera politikoa, Luis Ugalde josulagun eta Caracaseko (Venezuela) Gogoeta eta Hezkuntza Planifikaziorako Zentroko zuzendariren eskutik.**

Caracaseko (Venezuela) Gogoeta eta Hezkuntza Planifikaziorako Zentroko —karibetar herrialde horretako hezkuntza-ikerketarako zentrorik ospetsuenekoa bat— zuzendari **Luis Ugalde** josulagunak urriaren 16an, Venezuelak gaur egun bizi duen egoera politikoaren berri eman zigun, eta azpimarratu zuen *“herrialdearen berreraikuntza indar guztiak batuta bakarrik egin ahal dela”*.

Luis Ugalde, Bergaran (Gipuzkoa) jaioa 1938an, Filosofia eta Letretan, Teologia eta Soziologian lizentziatua da. Orobat, aditua da Venezuelaren Historia Ekonomiko eta Sozialean, Magister Scientiarum Historian, eta Historian doktorea. Ikasketa horiek Kolonbia, Alemania eta Venezuelako zenbait unibertsitatetan egin zituen.

Eta 2008az geroztik Venezuelako Politika Gizarte Zientzietako Akademiako Kide Osoa da. 1997an Kazetaritza Sari Nazionala lortu zuen; izan ere, 1991z geroztik zutabegilea zenbait kazetatan, horien artean *El Nacional* nabarmentzen delarik. Hogeita hamarretik gora libururen egile/egilekidea da eta



eta

da

artikulu ugari idatzi du zenbait aldizkari espezializatutan. Venezuelako *Universidad Católica Andrés Bello* unibertsitateko errektorea izan da eta, halaber, irakaslea izan da Venezuelako Unibertsitate Zentralean, Erlijiosoentzako Teologia Institutuan (ITER) eta Zuliako Unibertsitatean. Gainera, Jesusen Konpainiaren Unibertsitateen Elkarteko (AUSJAL) presidentea ere izan zen, 2009ra arte, eta Venezuelako Jesusen Konpainiako Probintzial Nagusia ere bai (1979-1985).

Haren lana mugaz gaindi ere hedatzen da, dela Jesusen Konpainiaren arazoei kasu egiteko, dela Unibertsitatearentzat ekarpenak lortzeko, dela Venezuelako gaur egungo egoera argitzeko.

- **4.8.- UPV/EHUren Udako Ikastaroak. Postmodernitateko Identitateak eta Ideologiak. Uztailaren 21, 22 eta 23an. Francisco Letamendiaren zuzendaritzapean**

Azken hamarkadotan postmodernitatea zera ideologikoari bainoago, zentrorik gabeko munduko zati ugarian piztutako laido-sentipenetik jaiotako identateei egokitzen zaie. Ekologismoa, Feminismoa, erdia-periferia Nazionalismoa, Indigenismoa: baina baita Eskuin

erradikal xenofoboa, Erlijio Fundamentalismoak... ere. Ideologia modernoak: Liberalismoa, Kontsebadurismoa, Sozialismoa, Anarkismoa, Komunismoa, Faxismoa, unibertsalista eta proselitistatzat jotzen ziren bitartean identitate postmodernoak sektorialak, autoerreflexiboak eta zatikatuak dira

Beste alde batetik, edukiontzia, Estatu bakoitzari “demos” edo herri homogeno bat eratxikitzen dion teoriaren, faltsutasun nabariak pluralismoa sendotu du, eta hortik sortu dira kulturantzatasuna, autodeterminazioaren teoria berriak, gatazka konpontzeko prozesuak...

Udako ikastaroaren asmoa zen, irakasleei, ikasleei zein, oro har, entzuleei, erdigunerik gabeko munduko



identitateen/ideologiaren kausak eta beraien gaineko teoriak azaltzea eta beraien agerpenetako batzuekin ohitzea: pentsamolde modernoak, eskuin erradikala, ekologia, ekosozialismoa, katalanismoa, gatazka konpontzea, feminismoa eta “suminduen mugimenduak”. Parte-hartzaileak izan ziren: Ramón Máiz Suárez Santiago de Compostelako Unibertsitatekoa; Francisco Letamendia Belzunce, UPV-

EHUko Gizarte Zientziak eta Komunikazioaren Fakultatekoa; Iñaki Barcena Hinojal, UPV-EHUko Gizarte Zientziak eta Komunikazioaren Fakultatekoa; Joaquim Lleixà Chavarría, Bartzelonako Unibertsitatekoa; Joan Antón Mellón, Bartzelonako Unibertsitatekoa; Izaro Gorostidi Vidaurrezaga, Jone Martínez Palacios, Jule Goikoetxea Mentxaka eta Igor Ahedo Gurrutxaga, UPV-EHUko Gizarte Zientziak eta Komunikazioaren Fakultatekoak..

5.- MEMORIA HISTORIKOA

- **5.1.- “Goazen gudari danok.... Askatasun bidean Zirardamendi-Aiastia (San Migel) Elgoibar, 1936, En defensa de la libertad”.**

Joan den abenduaren 18an Bizkaiko Arkeologi Museora (Bilbo) heldu zen “Goazen gudari danok.... Arkeologia eta memoria historikoa. Askatasun bidean Zirardamendi-Aiastia (San Migel) Elgoibar, 1936, En defensa de la libertad” erakusketa ibiltaria.

Erakusketa Sabino Arana Fundazioak antolatuta zegoen, zenbait udalekin eta beste instituzio eta beste kultur erakunde batzuekin, besteak beste, Aranzadi Elkartarekin eta Sancho de Beurko Elkartarekin elkarlanean. Erakusketa beste programa baten barruan dago, zehazki Zirardamendi-Elgoibar frontean, 1936ko irailean, gertatu zen guduaren oroitzapenezko ekitaldien egitarauan, zeinen bidez, gainera, gorazarre egin nahi baitzaie orduan hil ziren milizianoei eta gudariei, haietariko asko bizkaitarrak.

“Hasiera batean gatazka hartan jazo ziren gudu ugarietako bat besterik ez lirudikeenak azken buruan esangura berezia izan zuen Euskadirentzat. Gatazka hartan gudu hura mugarri bat izan zen, bere aurrekoa eta ostekoa bereizi zituen eta, neurri handi batean, baita gure Herriaren historian eragin handia izandakoa ere”, dio erakusketaren arduradun Iñaki Goigoganak.

Arana Goiri batailoiko hamalau gudari hil ziren 36ko irailaren 25ean Zirardamendi-Aiastia (San Migel)-Elgoibar frontean, Euskadiren askatasunak defenditzen: Juan Agirre, Emeterio Llavori, José Txintxurreta, Paulino Beraza, Juan Zabala, Blas Larrazeleta, Ambrosio

Etxebarria, Felipe Elorriaga, Sabin Atutxa, Eusebio Gaubeka, Imanol Etxebarria, Marcelino Gandarias, Miguel Palacio eta Félix Arbulu. Guztiak Arana Goiri batailoikoak, Erandio, Leioa, Getxo, Santurtzi, Bilbo eta bertako Begoña eta Abando elizate ohiak, Getxo, Barakaldo eta Portugalete herrietako gazte haiek 36ko gerrako fronte hartan hil ziren.

Hain zuzen ere, gudari haien jarkierak eragotzi zuen ejertzito altxatuak aurrera egitea, bai halaber, frontea zenbait hilez egonkortzea lortu. Horrenbestez, Autonomia Estatutua, Madrilako Gorteetan urriaren 1ean onetsia izan zelarik, eraginkor bihurtu ahal izan zen eta urriaren 7an Lehendakari aukeratu zuten Jose Antonio Agirre, zeinek bere kargua Gernikan zin egin baitzuen. Horretara, bada, lehenengo Eusko Jaurlaritzak armada bat eregitea lortu zuen, edo baita milaka eta milaka errefuxiatu (umeak batez ere) sorotsi zituen laguntza-sare bat ere, unibertsitate bat, euskarazko egunkari bat, hezkuntza-sare bat, etab. Hori guztia 1936ko urria eta 1937ko ekaina bitartean.

Horrexegatik, joan den irailaren 4az geroztik, egun horrexetan inauguratu baitzen erakusketa Elgoibarren, oroitzapenezko hainbat ekitaldi gauzatu izan dira, gorazarre egiteko gudari haiei. Horrenbestez, hile horrexen 15ean liburu bat aurkeztu zen, Patxi Juaristi soziologoak, Aitor Estebanek, Francisco Etxeberria auzitegi-medikuak eta Josu Chueca eta Iñaki Goigana historialariek idatzia; liburu horretan frontean gertatutakoa gogoratzen eta bere testuinguruan kokarazten da. Irailaren 18an, Baleukok ekoiztako dokumental bat estreinatu zen. Hilaren 21ean, Iñigo Urkullu zela buru, San Migeleko (Aiastia-Elgoibar) pilotalekuan eta Zirardamendiko maldetan gorazarre egin zitzaizen hildako gudariei.

Joan den irailean Elgoibarren abiatu zenetik, erakusketak gudari haien jatorriko herri batzuk ere ibili ditu; zehazki, Erandio, Leioa, Mungia, Santurtzi, eta orain Bilbora heldu da. Erakusketari lotuta, Iñaki Goigana eta Patxi Juaristiren eskutik, gidaridun zenbait bisita eta hitzaldi ere antolatu dira hura paratu den herrietan.

Panelak azalpen-testuekin, argazkiak, jantziak, borrokan erabilitako trepetak (kaskoak, armak, eskuko bonbak, kantineplorak, mahai-tresnak, platerak, zenbait jantzi), beira-arasak, erakusgai dituztela Aranzadik 2012an Zirardamendin hustutako hobi komunean aurkitutako gauzaki pertsonalak, etab.

6.- GAZTERIA

- **6.1.- Balia itzazu, zeu baliogabetu barik. Internet + Gizarte Sareak: identitate digital bat ondo garatzeak duen garrantzia**

DBH-ko, Batxilergoko eta LH-k 600 bat ikasle bildu ziren joan den azaroaren 18an eta 19an Euskalduna jauregian egin zen “Balía itzazu, zeu baliogabetu barik + Gizarte Sareak” jardunaldien V. aldira. Euskaltekin elkarlanean antolatu direlarik, aurreko gurekin izan ditugu, hilaren 18an (gaztelaniazko jardunaldia): **Antonio Ortiz** Error 500” blogaren administratzailea, ingeniari informatikoa eta software-garapenaren analista aditua; **Estefanía Jiménez** Ikus-entzunezko Komunikazioan doktorea, EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakaslea eta *EU Kids Online Spain* (europar proiektua) lantaldeko kidea, eta **Iker Merdodio**, Kazetaritzan doktorea eta IKT gaietan aditua .



Biharamunean, euskaraz, **Ion Muñoa** Deustuko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileak, **Maialen Garmendia** Soziologian doktore, EHUko Soziologia Saileko irakasle titular eta *EU*

Kids Online Spain lantaldeko zuzendariak eta **Erlantz Urresti** gizarte-sareetan trebatzeko prestatzaileak, edozein erabiltzailerentzat bere identitate digitala ondo garatzeak duen garrantziaz ohartarazi zituzten neska-mutilak. Aholku batzuk ere eman zizkieten, sarean aurkitu ditzaketan aukerez, baina baita han sortu daitezkeen arriskuez ere.

Ikasleak honako ikastetxe hauetatik etorritakoak izan ziren: Bizkaia ikastetxea, Ama Mesedetakoa Ikastetxea (Leioa), Begoñako Andra Mari (Barakaldo), Mikeldi ikasketa-zentroa (Bilbo), San Félix Ikastetxea (Ortuella), Begoñazpi (Bilbo), Leioako Gaztelueta Ikastetxea eta Leioako Institutoa.

- **6.2.- EGI Memoria Historikoan murgilduta**

Ondo ohartuta zeudelarik une egokia zela iraganaren berrikuste kritiko bat egiteko, eta ikusita gazteen prestasuna ekimenean parte hartzeko, Euzko Gaztedi EGIk zenbait jarduera antolatu ditu gai garrantzitsu batzuen gainean hitz egiteko, hala nola, euskal gatazka eta EAJ-PNVren eta Euskadiren historia.

Horrenbestez, urriaren 24an, Sabino Arana Fundazioarekin elkarlanean, “Bakea eta bizikidetzat” mintegia antolatu zuen, eta bertan parte hartu zuten Txema Montero abokatuak, Elvira C. García Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko teknikariak eta *Irish Youth Council*eko ordezkari zenbaitek. Elkarraldi hartan irizpide bat baino gehiago entzun ahal izan genituen Irlandan eta Euskadin garatzen ari diren bake-prozesuei buruz. Orobat, hizlariak bakoitzak bere iritzia eman ziguten bakearen eta bizikidetzaren gaiari buruz.



Azaroaren 20an, izenburu orokor gisa “Oroimen historikoa” erabili zela, EGI eta Helduak elkartarekin elkarlanean, topaketa bat antolatu genuen, EAJ-PNVk eta Euzkadiko Jaurlaritzak Gerra Zibilean bete zuten zereginari eta Francoren Diktaduran bizi izandako gertaerei buruz hitz egiteko. Oraingoan elkarraldiko protagonistak Joseba Leizaola klandestinitatean GBBko burukidea izandakoa, Gerardo Bujanda, Euzko Gudarosteko kidea, eta Mari Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako sailburu ohia izan ziren. Gonbidatuek euren iritzia jakin eragin zizkieten gazteei eta hainbat pasadizo, tratatutako gaiak lotuak, kontatu zizkieten. Zeren uste baitugu, orain duguna ulertzeko, beharrezkoa dela iraganen gure aurrekoek egin zutena jasotzea.



- **6.3.- Jardunaldiak: “XXI. mendeko gazteriarentzako politikak”**

Abenduaren 12 eta 13rako, Gaztepolisekin elkarlanean antolatutako jardunaldiak. Helburu

nagusia izan zen, gazteria-politiketan prestatzea arlo horrekin zerikusia duten eragile guztiak. Horrenbestez, bada, abenduaren 12an egin zen lehenengo jardunaldia, zeinetan Juan Mari Aburtok —EAJ-PNVren hautagaia Bilboko alkatezarako— eta Unai Rementeriak —EAJ-PNVren hautagaia Bizkaiko Ahalduen Nagusia izateko—, elkarraldian parte hartu zuten hiru gazte-enpresa-ekintzailerekin batera, Bizkaian abian ipintzen ari diren gazteriarentzako aukerak eta planak aurkeztu zizkiguten. Biharamunean, Gotzon Baraia eta Jon Urresti soziologoek eta Jonatan Morenok —Iritziak Batuzekoa— gazteek politikaz duten interesaz edo interesik ezaz hitz egin ziguten, baita, parte-hartzeko izan daitezkeen bide orain artean erantsiei buruz ere.

- **6.4.- Tailerrak: “Olentzero eta oparien ordua”**

Abenduaren 15ean Artxandape Ikastolako (Bilbo) Lehen Hezkuntzako 3. mailako berrogeita hamar bat ikaslek “Olentzero eta oparien ordua” tailerrean parte hartu zuten. Tailerra Sabino Arana Fundazioak antolatuta egin zen eta Antton Irusta euskal idazle, filologo eta ipuin-kontalariak eman zuen.



Txikiei zuzendutako tailer horien bidez lortu nahi dena da, haien ulermena eta adierazmena garatzea; horretarako, ikasleak ipuinak idazten, eraldatzen, planifikatzen, imajinatzen eta balioesten ipintzen dira. Irusta aditua da

irakaskuntzan horrelako tailerrekin lan egiten; beraren asmoa izaten da, neskato-mutikoei ipuin tradizionalarekiko eta sorkuntza literarioarekiko jakin-mina eta estimua sentiaraztea. Jarduera horretan, “Olentzero eta oparien ordua” filma ikusi ostean, Artxandapeko umeek euren ipuina sortu zuten bakoitzak bere irudimenetik ateratako irudiekin eta testuekin.

7.- EUSKERA

- **7.1.- Mintegia: “Desagertzeko arriskuan dauden europar hizkuntzak eta Europar Batasuneko hizkuntza-aniztasuna”**

Joan den otsailaren 21ean Europako Parlamentuko Hizkuntzei buruzko Talde-elkarteko presidentekide biek, hau da, **François Alfonsik** (Berdeak-ALE Taldekoa) eta **Csaba Sándor Tabajdik**, (Europako Parlamentuko Sozialisten eta Progresisten Aliantzaren Taldekoa) parte hartu zuten Euskaltzaindiak eta Sabino Arana Fundazioak antolatutako mintegi horretan,



zeinetara, gainera, beste berrogeita hamar bat pertsona ere etorri ziren: eurodiputatuak, Eusko Jaurilaritzako eta Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkari batzuk eta euskararen, hezkuntzaren eta euskal kulturaren esparruan diharduten zenbait erakunde eta elkartetako ordezkari batzuk.

Alfonsik eta Csaba Sándor Tabajdik, “Desagertzeko arriskuan dauden europar hizkuntzei eta Europar Batasuneko hizkuntza-aniztasunari buruzko txostena”ren egileek, eskubide berdintasuna galdegin zuten gutxiengo eta erkidego nazional tradizionalentzat, bai eta estaturik gabeko herri eta nazioentzat, hala nola, katalanak, euskaldunak, eskoziarrak, bretoiak, alsaziarrak, korsikarrak eta galestarrak.

- **7.2.- Mintegia: “Euskara batua eta euskalki-hizkerak elkar eragin aberasgarri bati buruz”**

Sabino Arana Fundazioak eta Labayru Ikastegiak elkarraldi bat antolatu zuten abenduaren 12an, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan “*Hacia una relación enriquecedora del euskara batua y los dialectos* - Euskara batua eta euskalki-hizkerak elkar eragin aberasgarri bati buruz” izenburupean.

Idazleak, erakunde publikoetako ordezkariak, itzultzaileak, sortzaileak eta euskararekin eta euskal kulturarekin zerikusia duten kideak, denetara hogeita hamar bat, bildu ziren, euskalkien jatorriaz, bilakaeraz eta gaur egungo egoeraz, bai halaber, euskalkiek euskara sendotzeko egin duten ekarpenaz gogoeta egitea xede.

Parte-hartzaileak izan ziren, besteak beste: **Adolfo Arejita**, Labayru Ikastegiko zuzendaria; **Aritz Abaroa**, Euskaltzaindiaren EHHA egitasmoko teknikaria; **Dorleta Alberdi**, euskaltzain urgazlea eta Bizkaiko Gotzaindegiko Komunikazio arduraduna **Helena Baraibar**, Laskorain ikastolako zuzendariordea; **Mikel Barrios**, Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko hizkuntza-teknikaria **Nagore Etxebarria**, euskaltzain urgazlea eta Labayru Ikastegiko arduraduna; **Karmele Olano**, IRALEko irakaslea; **Javier Onaindia**, Bizkaia Irratiko zuzendaria; **Erramun Osa**, euskaltzain urgazlea eta mintegiaren koordinatzailea; **Iurdana Acasuso**, Azkue Fundazioko zuzendaria; **Igone Etxebarria**, Labayru Ikastegikoa; **Eneko Barrutia**, Bilboko Hizkuntza Eskolako irakaslea, etab.



8.- ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGI HISTORIKOA

8.1.- Artxiboko dokumentazioa

2014an jarduera nagusiarekin jarraitu dugu, hau da, artxiboko dokumentu-funtsak erregistratu, instalatu eta deskribatzea. Antolatu eta ondoren ikertzaileen eskura ipini den dokumentazioa hurrengo hau da:

- Francisco Agirre Basterraren (1921-1981) artxibo pertsonala
- José Antonio Durañonaren (1936-1990) artxibo pertsonala
- Juan Antonio Kareaga Anduezaren (1933-1962) artxibo pertsonala
- Julio Jauregi Lasantaren (1927-1981) artxibo pertsonala
- Sodupeko EAJ/PNVren Uri Buru Batzarraren Artxiboa (1976-2003)
- Leonardo Salazarren (1936-1975) dokumentazioa

Aldi berean erregistro informatizatua egin da, datu-basetan, dohaintza partikularretatik datozen dokumentuen hasiera bateko deskripzioa egiteko; urtean zehar 400 fitxa irauli dira eta, ikus-entzunezko materialentzat, 482 fitxa bete dira.

Instalazio-unitateak eta haien edukiak egiaztatzen jarraitzen dugu, inbentarioak eta datu-baseak batera kontsultatuz. Horrenbestez, dauden deskripzioetan sakondu ahala okerrak zuzentzen ere bagoaz, bai halaber, karpetak berrinstalatzen, xahutze-lanak egiten eta libre dagoen lekua ahalik hobetoen erabiltzen gordailuko toki guztietan (apalategietan, apaletan kaxetan...)

8.2.- Biblioteka-funtsak

Gure Bibliotekan 2014/12/31ra bitartean guztira zenbatu diren monografiak 41.818 liburuki dira. 2014n beste 452 lan erregistratu dira.

Bilboko gordailuan 31.048 lan daude bilduta

Arteako urruneko gordailuan 10.770 lan daude.

Azken urteotan egiten ari garen bezala, Bilboko gordailuan obra bakoitzaren ale bat bakarrik ari gara gordetzen argitarapeneko, beti ere haren gaia eta edukia gure liburutegi espezializatuan ezarritako irizpideen barruan badaude. Beste lan guztiak, edo Arteako urruneko liburutegira (gordetzeko balioagatik), edo beste leku batzuetara bideratzen dira.

Azken urte honetan aipatzekoak izan dira, emandako lanen kopuruagatik, Peru Ajuria, Iñaki Anasagasti, Gaintza eta Iker Paduraren dohaintzak.

8.3.- “Uzturre” hemeroteka

Beste urteetan bezala 2014an ere gure Hemerotekaren jarduera nagusia urtean zehar jasotako agerkari aldizkarien aleak erregistratzea eta katalogatzea izan da. 2014an 74 izenburu berri erantsi zaizkio. "Uzturre" hemerotekak orain 6.790 izenburu desberdin dauzka, denetara 173.818 ale direlarik.

Bestalde, “*Vaciado*” datu-basean (hainbat agerkaritan —*Euzkadi, Alderdi, Hermes, Deia*, etab.— ateratako artikuluen informazio historikodunak) dagoeneko **5.111** fitxa daude.

8.4.- EHuko ikasleek egindako lanak

Hemerotekari atxikitako praktika orokorra, ikasturte bakoitzean ikasle berriekin berritzen delarik, zera izaten da, Euzkadi egunkarian Euskal Abertzaletasunaren egitura politikoari eta sozialari buruz agertzen diren erreferentzia guztien informazioa biltzea eta berori datu-base informatizatu batera iraultzea.

2014an 416 albiste, 1916ko lehenengo sei hilekoak, aurkitu eta mekanizatu dira. Datu-baseak orain arte 3.734 albiste dauzka (1913ko otsailaren 1etik 1916ko ekainaren 30era arte). Joan den urritik aurrera, artean hasita zegoela 2014-2015 ikasturtea, beste praktika bati ekin diogu: Sabino Arana Goirik sortutako Bizkaitarra (1893 – 1895) egunkarian agertutako

albisteak iraultzea; guztira 35 zenbaki dira. Lan horrek, dagoneko datu-baseko 400 sarrera erregistratu dituelarik, 2015eko udaberrira arte iraungo du eta Aranak zuzendutako beste agerkari batzuk ere barne izango dira.

8.5.- Kontsultak - aholkularitza historiko-dokumentala, lankidetzak, jardunaldietan parte hartzea, kontrol editoriala -Web.

- Kontsultak:

Euskal Abertzaletasunaren Agiritegian 2014an 293 informazio-eskari jaso dira, gehienbat e-posta bidez, gero atzetik datoz telefonoaren bidezkoak eta gure web orrian ostatatutako formularioetan daudenak. Beste behin ikusten ari gara, kontsulta kopurua bere hartan jarraitu ez ezik, handitzen ere badoala, 2013an aurrez aurre jasotakoen aldean, gutxi bada ere, baina esan behar da ere, urte horretan aurreko urteetako kopuruak bikoiztu zirela.

Aldaketa handirik gabe, baina kontsultarik gehienak izaten dira gerrari, erbestaldiari edo norbanakoei (gudariak, presoak, galduak etab.) buruz, eta egin izan dituzte bai senideek eta bai zenbait instituziok nahiz hedabidek (Deia, Berria...), datu bila ikerketa-lanetarako, efemerideetarako etab.

Partikularren kontsultak aurreko urtearen aldean gutxiago izan badira ere, unibertsitate-esparrutik (sailak, irakasleak, ikasleak, tesiak, etab.) egin direnak pixka bat gehiago izan dira, eta Euzko Alderdi Jeltzalea erakundetik egindakoak bikoiztu egin dira

Banakapena:

Partikularrak:	188	Erakunde soziokulturalak:	18
Unibertsitate-esparrua	31	Deia:	17
EAJ		30	Barrukoak
			9

1992ko urritik hona zenbatuta, jasotako kontsultak **4.812** izan dira.

- Aholkularitza historikoa eta dokumentala:

Iaz Sabino Arana Fundazioaren Agiritegi Historikotik eman den aholkularitza historiko nagusia honako egitasmo hauetarako izan da:

- “Goazen gudari danok” erakusketa: argitalpenaren kapitulu bat idaztea, erakusketaren gidoia prestatzea eta aipatu erakusketa aurkezten ari den herrietan gidaridun bisitak egitea. 2015ean ere jarraitzen du.

- “El Gobierno vasco en el exilio” (Euzkadiko Jaurlaritza erbestean) —TrianoMedia—: bigarren kapituluaren gidoia, dokumentalak ikuskatzea eta agiriak eta irudiak zerbitzatzea.

- Sabino Aranari buruzko dokumentala (150. urteurrena) . 2015ean ere jarraitzen du.

- Kolaborazioak:

. DEIArako artikuluak, “Euskaldunen historiak” sailerako, Luis de Guezalak koordinatuta.

. BILBAOPEDIArako biografiak (25 testu)

- Parte-hartzeak: jardunaldetan eta hedabideetan

- TL7n ikur frankistei buruzko saioa (alkateen koadroak Bilboko Udaletxean), 2014/02/21, Luis de Guezala

- Mahaingurua Elgoibarren, 2014/03/5, Iñaki Goiogana

- “Agirrerri buruz”ko hitzaldia Abadiñon, maiatzaren 19 eta 23 bitartean, Iñaki Goiogana ATZERATUTA BERRIRO ESAN ARTE

- Debatea Onda Vascan deiadar-mendiei buruz, 2014/04/12.

- EITBrako elkarriketa, 2014/07/8.

- Hitzaldi-aurrekepena Bilbo Zaharreko batzokian, 2014/07/9.

- Onda Vascarako elkarriketa Ikurrinari buruz, 2014ko uztailaren 2. eta 3. asteak.

- Xenpelar Dokumentazioan parte hartu da, euskal antzerkiari buruz, 2014/11/20, Iñaki Goiogana.

- 11 hitzaldi “Goazen gudari danok” erakusketaren barruan.

- Sabino Arana Fundazioaren web orria

Agiritegiak Fundazioaren webean ere laguntzen du, aldizka eguneratuz aipamen bibliografikoen datu-basea, eta, Prentsarekin batera, Mezu@ buletin elektronikoaren mantentzea eginez, bai eta aplikazioarekin, izen emandako erabiltzaileekin, buletin-bidalketarekin zerikusia duen guztia, etab.

8.6.- Partikularren dohaintzak

Artxiboko dokumentazioa dohaintzaz eman dutenen kopurua, 2014ko abenduaren 31 bitartean, 1.412 emaile izan da. Urte horretan **59** pertsona izan dira Abertzaletasunaren Agiritegi Historikoari lagundu diotenak dohaintzak emanez; horietarik **27**, dohaintzagile berriak izan dira.

8.7.- Ikertzaileak

2014an 61 ikertzailek kontsultatu dituzte aretoan bertan gure agiri-funtsak.

9.- EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA

9.1.- URTEKO BALANTZEA

Sabino Arana Fundazioaren GOAZ MUSEUM – Euskal Abertzaletasunaren Museoak joan den 2014ko ekitaldian bere jardueraren zatirik handiena argazki-funtsa katalogatzeak eta dohaintza berriak erregistratu, inbentarioa egin eta ondoren katalogatzeak osatu dute.

Orobat, lan egiten jarraitu da hainbat funts antolatzen, berorien inbentarioa egiten eta katalogatzen; honako hauek:

- Argazki-funtsa: aurtan 200etik gora irudi erregistratu eta katalogatu dira, bai eta “Sabino Arana Fundazioa” zigilua irarri zaie.
- Dohaintza partikularretatik etorri diren funtsetako irudiak erregistratu, katalogatu eta digitalizatu, bai halaber zigilua irarri.
- Erregistraturiko irudien deskripzio fisikoa eta kontrastezko tratamendua.
- Identifikatzaileen inbentarioa, artapen-egoera, kopien zenbakiak, etab.
- Irudiak indexatu bakoitzari dagokion testu-fitxan.
- Argazki-albumetan instalatu dira, tamainaren, artapen-egoeraren eta beste irizpide batzuen arabera euskarri egokietan, ph neutroko tamaina desberdinetako gutun-azaletan ipinita, irudi bakoitzari dagokionaren arabera.

Atal honetan zeregin garrantzitsua egin dute praktiketan dauden EHUKo Arte Ederren Fakultateko ikasleek, zenbait funtsetako irudiak digitalizatu baitituzte, bai halaber haien deskribapen teknikoa eta tratamendua egin.

Eginkizun horretan 2015ean EHUKo Arte Ederretako Fakultateko, Filosofia eta Letren Fakultateko edota Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko ikasle praktiketakoek jardungo dute, eta gainera, beraiek arduratuko dira horma-irudien funtsa antolatzeaz, argazkiak egiteaz eta deskribapen teknikoa egiteaz.

- Horma-irudien bilduma.- Eranskailuen bildumarekin egin den bezala, material jaso berrien inbentarioa egiten jarraitu da: idazpen berriak egin dira eta argazki digitalaren bitartez erregistratu.
- Bestalde, 100etik gora material-idazpen erregistratu eta instalatu ditugu, dekorazio-artekoak, ehungintzakoak, armategi arlokoak eta beste arlo batzuetakoak.
- Ehungintza-funtsak: gure erakundera aurtan iritsi diren eta dagoeneko gure Bilboko gordailuetan dauden eskuraketak aztertu, berorien inbentarioa egin eta katalogatu.
- Eranskailuen bilduma.- Jaso diren berriak katalogatzen jarraitu da.

Lehendik deskribatutako eta inbentarioa egindako funtsei dagokienez, esan behar da ze, joan den 2014ko ekitaldian zehar GOAZ MUSEUM — Euskal Abertzaletasunaren Museoak ia 270 kontsultari erantzun diela.

Gaur egun, 2014an jasotako zenbait dohaintza garrantzitsuren inbentarioa egiten dihardugu, bai eta dagozkien euskarrietan instalatzen. Ildo horretan, bereziki aipatzekoak dira funtsetarako berreskuratu diren materialak: argazkigintza, ehungintza, dekorazio-arteak, arte grafikoak, etab.

Aldi baterako erakusketei dagokienez, gure parte hartzea izan da, gai desberdinetako zenbait erakusketarako 150etik gora pieza lagatzea zenbait instituziorekin elkarlanean, honako hauek, besteak beste:

- **Aranzadi Zientzia Elkarte**a, “Leioa 1936-1945” izenburuko erakusketan, zein Leioako Kultur Etxean egin baitzen.
- **Durango Arte eta Historia Museoa**, “Valentín María de Zubiaurreren heriotzaren mendeurrenean” izenburuko erakusketarako.
- **Euzko Alderdi Jeltzalea**, “Ikurriña Geurea Guztiona” izenburuko erakusketarako, zein haren egoitzan, Sabin Etxean, paratu baitzen.

Parte hartu dugu, geure pieza batzuk lagatuz, museo eta erakunde hauekin:

- **Gernikako Bakearen Museoa**
- **Euskal Poliziaren Museoa**
- **Museo de l’ Exili**
- **Eusko Legebiltzarra**

Hala ere, 2014ko eskaintza didaktikoa “Olentzero eta oparien ordua” tailerra abian ipiniz gauzatu da. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleei zuzenduta, joan den abenduan egin zen, Antton Irusta filologo, ipuin-kontalari eta idazleak emanda.

9.2.- KONTSULTAK, LANKIDETZAK

GOAZ MUSEUM – Euskal Abertzaletasunaren Museoak 2014 osoan 300 kontsulta baino gehiago jaso ditu; horrezaz gain, 1.000tik gora irudi ere hornitu dizkie bai norbanakoei, bai ikertzaileei, nahiz hedabide, ekoiztetxe eta erakunde zenbaiti.

Orobat, ikertzaileen aretoan zenbait azterlari zerbitzatu ditugu, han argazki-funtsak zein dekorazio-arteak kontsultatu ahal izan dituztelarik.

9.3.- TAILER DIDAKTIKOAK

Ipuin tradizionalak hezkuntzarako duten balioa

Artxandape Ikastolako Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ehunetik gora ikasleek parte hartu dute “Olentzero eta oparien ordua” tailerrean, zein Antton Irusta filologo, ipuin-kontalari eta idazleak eman baitu, GOAZ museum-Euskal Abertzaletasunaren Museoak antolatuta..

Oraingoan Olentzerorekin lotutako ipuin-tailer bat egin dugu, euskal istorioak sustatzeko eta ulermenaren eta adierazmenaren garapena bizkortzeko; horretarako, ikasleak ipuina sortzera bultzatzen dira, aldi berean haien adierazteko gaitasuna sustatzeko, idatziz zein beraiek sortutako irudien (binetak) bitartez.

Irusta aditua da horrelako tailerren irakaskuntzan lan egiten, eta horien bidez lortu zuen, umeek ipuin tradizionalarekiko jakinmina eta estimua senti zitzaten, bai halaber literatur sorkuntzarekikoa, euskal kultura eta bizi garen gizarte hau ezagutzeko bitartekoetako batzuk direnez gero. Senti zitezela testu eta ipuin tradizionalen irakurketak eta, banaka zein taldean, halakoak sortzeak erakarrira.

“Goazen Gudari Danok” erakusketarekin hainbat bisitaldi gidatu ditugu hura erakusgai egon den udalerrri guztietan.

9.4.- ALDI BATERAKO ERAKUSKETAK ETA MAILEGUAK

800etik gora gauzaki eta material laga zein mailegatu dira hurrengo erakusketa hauetarako:

- **“Leioa 1936-1945”-2010**”, Arazadi Zientzia Elkarteak antolatua.
- **”Nunca más imágenes de guerra”**, Elorritxuri Kultur Elkarteak antolatua.
- **”Ikurriña Geurea Guztiona”**, EAJ-PNVk antolatua.
- **“Goazen gudari danok”**, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Elgoibar, Bilbo, Santurtzi, Erandio, Mungia eta Leioako udalek antolatua.

9.5.- GOAZ MUSEUM-i EGINDAKO DOHAINTZA PARTIKULARRAK

Hogeita hamarretik gora norbanakok eta erakundek egindako dohaintzen emaitza gisa, GOAZ MUSEUM – Euskal Abertzaletasunaren Museoan 2014an 160 pieza baino gehiago jaso dira, 900etik gora irudi, horietako asko argitaragabeak, eta ia 400 horma-irudi desberdin.

10.- SABINO ARANA SARIEN KULTUR JAIALDIA



Sabino Arana Fundazioak joan den 2014ko urtarrilaren 26an bere Sabino Arana Sarien XXV. aldia ospatu zuen. Gala bakearen aldeko eta Euskadiko adisketzearen aldeko alegatu bilakatu zen; baina ez ziren falta ere aurtengo sarituek ekarritako beste osagai batzuk, hala nola, elkartasuna, konpromisoa, ahalegina eta ekintzaile-gogo eta kementa. Aurtengo kultur jaialdian, Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakaria izan duela buru, sarituak izan dira: Cafés Baqué, Santa María Katedrala Fundazioa, Juan Eduardo Errázuriz enpresari euskal txiletarra, Euskadiko Elikagaien Bankuen Federazioa, Zumaiako Emakume Arraunlariak (Telmo Deun Arraun Elkarte) eta monsinore Juan M^a Uriarte.

Ekitaldiaren hasieran Sabino Arana Fundazioko lehendakari Juan Mari Atutxak azpimarratu zuen “herri txiki bat garela” eta gure balio erantsia “ez dela tamaina, ez indarra, ez boterea. Hura gurean, bultzatzen, lantzen eta garatzen ditugun balioen handitasuna da. Eta beste urte batzuetan guk saritutakoak eta gaurko gure seiak dira horren adierazgarri onena”.

Orobat, nabarmendu zuen, beharrezkoa dela denon artean bakearen amets hori betetzea. Eta erantsi zuen ere bai: “Ez da garaipenaren ez porrotaren bakea, ez da lubakien bakea, ez eta hilerrietakoa, ez da amnesiaren ez ahanzturaren bakea izango. Bakerik zailena izango da: gorrotorik bako bakea, elkarrizketaren bakea, adiskidetzearena, giza eskubideen bakea, pertsona guztientzako eskubide guztiena”.

Ildo horrexetan Juan María Uriarte Donostiako gotzain emerituak ETari galdu zion, armagabetzeko eta desgiteko, eta Gobernuari, “leundu dezala espetxe-politika, prozesua usteltzea ekiditeko” Gainera, dei egin zien “biktima guztiei, gai sentitzen direnean, barkamena eman dezaten, horretara, batuta bizi nahi duen komunitate baten ehun urratuak bltzeko”.

Cafés Baquéren ordezkari gisa María Baqué eta Esther Eguren aizpak, Baqueko presidentea eta kontseilaria, hurrenez hurren, mintzatu ziren, eta euren ideia berretsi zuten, hots: zirrara eragin eta pertsona askoren ametsa posible egingo duten egitasmoak bilatzen jarraitzea. “Babes eta laguntzaren alde egiten jarraitu behar dugu, eta enpresa askoren bihotza hunkitzen.

Gainera, erronkak eta helmuga handiagoak ipini behar dizkiogu geure buruari, eta ondo barneratuta eduki, enpresak baldin bagaude, hori da gure produktua eta zerbitzuak erosten dituztenengatik”, azpimarratu zuten.

Juan Ignacio Lasagabasterrek, Gasteizko Santa Maria Fundazioko zuzendari gerenteak, adierazi zuen hunkiturik eta harro sentitzen zela, “zeren sari honek berresten baitu, zati handi batean, behintzat, ezarritako helburuak betetzen ari direla”. “Beste behin, arabarren historian, beste une batzuetan bezala, erabaki genuen Santa Maria katedralak ataka zail hartatik atera behar zuela, eta hala gertatzear dago, berriro operatiboa izateko zorian dago; baina garrantzitsuena da, hemen nola dakigun gauzak egiten erakusten duen adierazgarri gisa agertu dela, alegia: arazoa aukera bihurtzea oso jarrera geurea da”, esan zuen.

Juan Eduardo Errázuriz euskal txiletar enpresariak onartu zuen, oso ohoretsu sentitzen zela goraipamen hau jasotzean, eta nabarmendu zuen, “ez dela posible Txileren XVIII., XIX. eta



XX. mendeetako historia aztertzea gure euskal asaben jardura seinalaturik aurkitu gabe gure herrialdea handi eginarazterakoan”. Aipa genitzake Errepublikako presidente, senatari edo diputatu izan diren euskaldunak, prelatu garrantzitsuak zein apaiz apalak, parrokoak, teologoak, unibertsitate-irakasleak, ahaztu gabe nekazariak, industrialariak, merkataria eta negozio-sortzaileak. Haien ahaleginak Txile nazio handi eta moderno egiteko elkartu ziten.

Euskadiko Elikagaien Bankuen Federazioaren izenean, Daniel Fernández presidentea mintzatu zen, galara berarekin etorrita lagun zituela Bizkaiko eta Gipuzkoako Elikagaien Bankuetako presidentek, Nicolás M^a Palacios eta Javier Sáenz, hurrenez hurren. Hark zera nabarmendu zuen “sari hau guretzat begiramen eta pizgarri handia da, behartsuenen alde lan egiten segitzeko”. “Euskadiko Elikagaien Bankuak oso termometro zehatz bat dira, etxe askotan jasaten ari diren gabezia ezagutzeko. Handitu egin da elikagaiak behar dituzten pertsonen kopurua. Euskadi osoan urtero 70.000 pertsonak jasotzen dute elikagai-laguntza”. Horrexegatik, erantsi zuen, “elkartasuna denon zeregina da” eta “lanean jarraitu behar dugu”. Eta Luis M^a Osa, Telmo Deun Arraun Elkartea-Zumaiako emakume arraunlariak taldeko presidentek eta Nagore Osorok, traineruko patroiak, gogora ekarri zituzten “gure klubean arraunean egin duten neskato, gazte eta emakumeak, eta jadanik badirela hogeit bat urte

entrenatzen eta lehiatzen hasi zirena, beti ahalegin handiarekin, sakrifizioarekin eta kemenarekin. Orobat, adierazi zuten espero eta nahi dutela, “hau bezalako sariekin eta antzeko beste batzuekin, emakumeen kirolak, oro har, eta banku finkoko arrauak, bereziki, merezi duten lekua lortzea, horrexegatik borrokatu baitira hainbeste denboran.

Iñigo Urkullu lehendakariaz gain, Herriko politika-, kultura- eta gizarte-esparruko pertsona nabarmen ugari egon ziren ekitaldian; besteak beste: Andoni Ortuzar, EAJ-PNVren Euzkadi Buru Batzarreko lehendakaria; José Luis Bilbao, Bizkaiko ahal



nagusia; Bakartxo Tejeria, Eusko Legebiltzarreko lehendakaria; Ana Madariaga, Bizkaiko Batzar Nagusietako mahaiburua; Itxaso Atutxa, EAJ-PNVren Bizkai Buru Batzarreko lehendakaria; Xabier Agirre, EAJ-PNVren Euzkadi Buru Batzarreko lehendakaria; José Antonio Ardanza, Mario Izeta; Bilboko gotzaina; Izaskun Landaia Emakundeko zuzendaria; Miguel Ángel Lujua, Confebasko presidentea; Aitor Esteban, Emilio Olabarria, Isabel Sánchez Robles eta Pedro Azpiazu (Kongresuko diputatuak), Jokin Bildarratz, Iñaki Anasagasti, María Eugenia Iparragirre, Ruth Martínez eta José M^a Kazalis (senatariak), Derek Doyle (Britainia Handiko kontsula), Fabrice Delloce (Frantziako kontsula), Iñaki Azua (Mexikoko kontsula), Tomás González (Brasileko kontsula, Iratxe Madariaga (Txileko kontsula), Juan Ignacio Vidarte (Guggenheim Museoko zuzendaria), Iñaki Goirizelaia EHU-UPVko errektorea, José María Guibert Deustuko Unibertsitateko errektorea, Arantza Laskurain *MONDRAGON Corporación*eko idazkari nagusia, etab.

11.- BESTE ERAKUNDE ETA INSTITUZIO BATZUEK SUSTATUTAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEA

Sabino Arana Fundazioaren izaera pluralak beste erakunde eta organismo batzuekin elkarraikiak egitea ahalbidetu dio, Fundazioaren beraren jarduerak sortzen dituenegaz gain, alegia.

2014an, halako jarduerak izan dira hauek:



Urtarrilaren 21ean Sabino Arana Fundazioak Adiskidetasun Basoa (*Bosque de la Concordia*) sortzen eta abian ipintzen parte hartu zuen. Monsinore Mario Iceta Bilboko gotzaina izan zen buru Derioko Apaizgaitegiaren eraikin-multzoan “Adiskidetasun Basoa” abiarazteko ekitaldian. Adiskidetasun Basoa Apaizgaitegiko zuzendaritzaren ekimen bat da eta 50etik gora enpresa eta erakunderen sostengua du.

Martxoaren 20an Sabino Arana Fundazioak eta Euskaltzaindiak lankidetzat hitzarmen bat sinatu zuten Bilbon; hitzarmena bost urterako da eta helburu nagusitzat du, euskara ona erabiltzea, sustatzea eta normalizatzea.

Apirilaren 26an Gernikako bonbardaketaren 77.

urteurrenako ekitaldian ere parte hartu genuen, EAEko herri-agintariekin, zenbait udal eta erakundeten ordezkariekin eta Gerra Zibiletik bizirik daudenekine eta horien senideekin.

Orain dela urte batzuek geroztik ohikoa izaten ari direlarik, 2014ko apirilaren 27an ere, Euskadiko *Irmandade de Centros Galego*ekin (Galiziako Etxeen Elkarte) elkarlanean, gorazarrea egin zitzaion Alfonso R. Castelao marrazkilari eta galiziar abertzaletasunaren sortzaileari, Sabino Arana Fundazioak haren omenez eregitako monumentuan.



Ekainaren 21ean 1936-1939 Gerrako gudariei eta milizianoei Artxandako “*La Huella*” monumentuan egin zitzaion omenaldian parte hartu genuen, ideologia desberdinetako eta erakunde zenbaitetako ordezkari batzuk bertan zirela.

Ekainaren 10ean, Sabino Arana Fundazioak “Goazen gudari danok...” dokumentalaren making off-ean parte hartu zuen. Dokumentala Baleuko ekoiztetxeak egin zuen Zirardamendi-San Migel-Aiastian.

Uztailaren 12an ikurrinari bere 120. urteurrenean egin zitzaion omenaldian parte hartu genuen.

Eta uztailaren 31n, EAJ-PNVren sorreraren 119. urteurrenean.

12.- HEDAPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Dauden estatistiken arabera, 2014an gure web orriak 77 herrialdetako internauten 18.000tik gora bisita jaso ditu. Ia 55.000 orri (edo bider) kontsultatu dira gure atarian daukagun informazioaren bila.

Gure Fundazioaren web orriak urte honetan, 2013an guztira izandako bisita kopuruari eutsi ez ezik, baita gaingitu ere egin du; aurreko ekitaldiaren aldean ia beste 400 gehiago izan dira gure web-ean lehenengo bider sartu diren bisitari berriak.

Web orriak berak duen egiturari eta beraren programazioak eskaintzen dizkigun aukerei esker, Sabino Arana Fundazioaren jarduerak aldizka hedatzen dira informatikoki Mezu@ buletin elektronikoaren bitartez; aurreko berritu eta eguneratu egin dugu.

Gure edukiak eta zerbitzuak Interneten gero eta gehiago agertze horrek bere isla nabaria izan du kontsulta eta eskaritan, adibidez, Abertzaletasunaren Agiritegiak web orrian ostatatutako

formularioen bitartez jaso dituenetan, eta ondorioz orain artean erabilitako bitartekoen (e-posta eta telefona) aurretik jarri da.

13.- BURUTUTAKO JARDUEREN EMAITZEN BALIOESPENA

2014an, “Goazen gudari danok... Askatasun bidean Zirardamendi-Aiastia (San Migel) Elgoibar, 1936, En defensa de la libertad” ekimenarekin Memoria Historikoari eskainitako atalak pisu handia izan du jardueren egitarauan. Erakusketa ibiltari bat, liburu baten aurkezpena, dokumental bat, Urkullu lehendakaria buru izan duen gorazarre bat, etab.; horien bidez, Gerra Zibilean, 1936ko irailean, Zirardamendi Elgoibarren hildako gudariak eta milizianoak omendu ditugu.

Gogoeta eta elkarriketarako mintzagunearen atalean, 2014an hogeita hamar ekitaldi egin dira, elkarraldi, mintegi, hitzaldi eta diziplinantzeko mahaingurutan.

Mintegietan, batez beste, azertu beharreko arloko 40 bat adituk parte hartzen dute eta hitzaldietara eta mahainguruetara 100-120 pertsona etortzen dira, batez beste. Mintzagune horretan parte hartu duten maila handiko pertsonen artean aipatu ditzakegu, besteak beste: **Graham Watson**, ALDE alderdiko (Europako Liberal eta Demokraten Aliantza) presidentea; **Luigi Cocilovo**, PDEko (Europar Alderdi Demokrata) idazkariorde nagusia eta Europako Parlamentuko mahaiburuordea; **Manfred Nolte**, Deustuko Unibertsitatearen *Deusto Business Schooleko* irakaslea eta Alboaneko kidea; **John Farrell**, Ipar Irlandako Osasuna, Gizarte Zerbitzuak eta Segurtasun Publikoa Sailean Osasun-zerbitzua Eraldatzeko zuzendariondoko; **Alfonso Lara**, *European Social Networkeko* (ESN) Politika eta Ikerkuntza zuzendaria; **Joaquín Giménez**, Auzitegi Goreneko magistratua, Zigor arloa; **Mercedes García Aran**, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Zigor Zuzenbideko katedraduna, **Carmen Lamarca**, Madrileko Carlos III.a Unibertsitateko Zigor Zuzenbideko katedraduna; **José Antonio Alonso**, Madrileko Konplutense Unibertsitateko Ekonomia Aplikatuko katedraduna; **Javier Iguñiz**, “*Acuerdo Nacional del Perú*”ko idazkari betearazlea; **Francesco Rutelli**, PDE-EDPko presidentea; **Gutenberg Martínez**, M. de Cervantes Unibertsitateko errektore eta Txileko Diputatu Ganberako, Txileko Alderdi Kristau Demokratako eta ODCAko mahaiburu ohia; **Eloy Álvarez Pelegry**, Deustuko Unibertsitateko Energia katedrako zuzendaria; **Jorge Rodríguez Grossi**, Txileko Ekonomia eta Energia Ministro ohia eta Txileko Alberto Hurtado Unibertsitateko Ekonomia eta Negozioak Fakultateko dekanoa; **Gabriela Cuevas**, Mexikoko Senatuko senataria; **Marc Moulin**, Lurralde Lankidetzarako Europar Elkarteko zuzendaria. Akitania — Euskadi; **Pantxo Etchegoin**, Euskal Kultur Erakundeko zuzendaria; **Olga Irastorza**, Bihartean Mugazgaindiko Ganberako koordinatzailea; **Jens Gabbe**, Europako Mugalde Eskualdeen Elkartearen (ARFE) Kontseilu Aholkulariko mahaiburua; **José Ignacio Sánchez Amor**, Kongresuko diputatua eta Europako Segurtasunerako eta Lankidetzarako Erakundearen (OSCE) Batzar Parlamentarioaren muga-arazoetarako ordezkari berezia; **Luis Ugalde** josulaguna, Caracaseko (Venezuela) Gogoeta eta Hezkuntza Planifikaziorako Zentroko zuzendaria, etab.

Nabarmenezkoak dira ere, Euskalduna jauregian, hurrenez hurren, DBH eta Batxilergoko 600 ikaslerekin egindako topaketa biak, haiei kontzientzia harrarazteko gizarte-sareek eta Internetek dituzten arriskuei eta aukerei buruz.

Gure deialdiak irekiak izaten direnez, euskal gizarte osoak du gure jardueretan parte hartzearen onura.

Agiritegiari dagokionez, 2014an eginkizun nagusiarekin jarraitu da: agiri-funts berriak erregistratzen, instalatzen eta deskribatzen, eta ikertzaileei zerbitzua ematen.

Bestalde, Euskal Abertzaletasunaren Museoak bere jardueraren zatirik handiena argazki-funtsa katalogatzen eta dohaintza berriak erregistratu, inbentarioa egin eta ondoren antolatzen eta zenbait tailer antolatzen bete du.

Beste alde batetik, HERMES pentsamendu eta historia aldizkariaren hiru zenbaki berri argitaratu dira; dagoeneko, denetara 48 dira.

Dagoeneko finkatuta dagoen gure beste kultur jarduera bat Sabino Arana Sariak dira; Fundazioak sari horiek 1988an, bere jarduerekin hasteaz batera, eratu zituen. Hastapeneko nahia eta oraingo asmoa berberak dira, hau da, gizartea zerbitzatzeko joranagatik eta ataza horretan ipinitako gogo biziagatik nabarmendu diren erakundeei zein norbanakoei omenaldi zintzo eta bihotz-bihotzekoa eskaintzea besterik ez.

Sabino Arana Sariak urterik urte, huts egin barik, eman izanak sendotu eta sustraitu egin du saria, zein Sabino Arana Fundazioko kideek eman ohi baitiete, euren esker onaren erakusgarritzat, egindako lanagatik gailendu diren kolektiboei eta bakoitzak xede izan duen kausaren alde egindakoagatik nabarmendu diren pertsoneri.

Bide horretan, bada, Sabino Arana Fundazioak baditu gizarte zein politika arloetako oso gizarte-oinarri ugari eta askotariko baten aintzatespena eta sostengua.

Kultura-gertakari horretara batez beste 1.000 bat pertsona etortzen dira urtero.

Beste alde batetik, beste erakunde eta instituzio batzuekiko harremanez denaz bezainbatean, gogara parte hartzen dugu, baita ere, haietariko hainbaten (Euskadiko *Irmandade de Centros Galegos*, beste fundazio batzuk, udalen nahiz aldundien ordezkariak, zenbait ikastetxe, Europar Demokraten Alderdia, Euskaltzaindia, etab.) ekitaldietan.

Emandako zenbaki eta datuen argitara, uste dugu, behar bezala bete ditugula aurreikusitako asmoak eta helburuak.